

ASTEBURU ETA OPOR GARAIETAKO IKASGELA ZERBITZUAREN ARAUDI OROKORRA

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1.- artikulua.

Araudi honen helburua da Gabriel Zelaia eraikinean kokatuta egongo den ikasgela zerbitzua arautzea, bai eta eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehaztea.

2.- artikulua.

Araudi hau Gabriel Zelaia gunearen atzeko erakinean kokatuta egongo den ikasgela zerbitzurako izendatu diren eremuetan aplikatuko da (sarrera, pasaleku eta egonleku orokorrak, eta ikasteko gela).

3. artikulua.

Gazteria Arloak araudi honetan jasotakoa argitzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea izango du. Araudi hau eta gainerako arau bereziak (ordutegiak, fidantzaren kopurua, etab.) jendearen esku egongo dira hhz-herritarren harrera zerbitzuan (Gudarien Plaza, z/g).

4. artikulua.

Asteburu eta opor garaietako ikasgela zerbitzua erabiltzeko eskubidea izango dute bertara sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek. Instalazioa (Gabriel Zelaia eraikina) ezingo da erabili ikasteko ez den bestelako ekintzetarako, asteburu eta opor garaietan, ez bada Udalak beste erabilera-baimen berezirik emango duela.

5. artikulua.

Herritarrentzako Zerbitzuak Batzordeak, erabilera arautzeko baldintzak aldatu nahiko baditu, proposamen berria helaraziko dio Osoko Bilkurari. Eta Osoko Bilkurak proposamena onartu egin beharko du araudi honen edozein aldaketa indarrean jarri ahal izateko.

BIGARREN TITULUA. ERABILTZAILEAK

6. artikulua.

Erabiltzaileak izan daitezke eskaria aurkezteko data kontuan harturik 16 urte beteta edo urte naturalean beteko dituzten herritarrak.

7. artikulua.

Instalazioan sartzeko baimen-txartela izatea beharrezkoa izango da beti. Baimen-txartela lortzeko eskari-orria behar bezala beteta Hernaniko Liburutegian aurkeztu beharko da. Baimen-txartela erabili ahal izango du eskaria egiten duen herritarrak, eta ezingo zaio beste edonori utzi instalakuntzan sartu ahal izateko.

1. Baimen-txartela eskuratzeko fidantza ordaindu beharko du erabiltzaileak eta txartela itzuliko duenean fidantza hori berreskuratuko du. Fidantzaren zenbatekoa txartelaren kostua izango da. Txartela galduz gero, fidantza galduko da. Beste txartel bat eskatuz gero, berriro fidantza jarri beharko da.

2. Udaleko edozein langilek eska dezake agiri hori aurkeztea.

3. Debekatua dago ikasgela barruan hitz egitea edota soinua ateratzen duen edozein gailu erabiltzea; eta erabiliz gero, beste erabiltzaileei ez molestatzeko behar beste neurriak hartuko ditu erabiltzaileak (soinua amatatu, kaskoak erabili, e.a.). Ikasgela barruan ezin da ez jan ez edan.

4. Erabilera txarrarengatik gertatzen diren kalteak kalte horiek eragin dituen pertsonak ordaindu beharko ditu.

5. Debekatua dago instalazioan erretzea, animaliarik sartze eta osasunaren, gizalegearen, higiearen, intimitatearen eta garbitasunaren kontra doan edozein gauza egitea. Animaliak sartzearen debekuaren salbuespena honako hau izango da: itsu-txakurrena.

HIRUGARREN TITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. KAPITULUA: ESKUBIDEAK

8. artikulua.

Erabiltzaile guztiek, baimen-txartela izanik, instalaziora sartzeko eskubidea izango dute, kasuan-kasuan ezartzen diren muga eta ordutegien barruan. Ohiko egutegia eta ordutegia hau izango da: larunbat, igande, jai-egun eta opor-garaietako egunetan, 8:00etatik 21:45era(egutegian ikus daiteke opor-garaietako zein egunek duten arratsaldeko ordutegia: 15:30-21:45).

9. artikulua.

Erabiltzaile guztiek, ezarritako fidantza ordainduz gero, zerbitzu honen instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, jendearentzako zabalik dagoen ordutegian.

10. artikulua.

Erabiltzaile guztiek eskubide hauek izango dituzte:

1. Hernaniko Udalak eskaintzen duen ikasgela zerbitzua erabiltzeko eskubidea, zerbitzuaren araudiaren arabera.
2. Erreklamazioen bat edo iradokizun bat aurkezteko eskubidea
3. Giltzarrapo propio bidez bertako takilak erabiltzeko eskubidea
4. Gazteria Arloari instalazio edo zerbitzuaren inguruko zalantzak galdetzeko edo iradokizunak nahiz erreklamazioak egiteko eskubidea.
5. Araudi honen ale bat eskatzeko eskubidea.
6. Gazteria Arloari emandako datu pertsonalak indarrean dagoen legerian jasota dagoenaren arabera babesteko eskubidea.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako gainerako guztirako eskubidea.

2. KAPITULUA: BETEBEHARRAK

11. artikulua.

Erabiltzaileek honako betebeharrak hauek daukate:



1. Instalazioa eta zerbitzua araudian jasotako arauen eta hura garatzen duten xedapenen arabera erabiltzeko betebeharra, Udaleko langileek emandako erabilerara jarraibideak betetz, eta Udaleko edozein langileek eskatuz gero, instalazioa eta zerbitzua erabili ahal izateko egiaztatzea aurkeztekoa. Instalazioan sartu ahal izateko baime-txartela aurkeztu beharko da.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua zaintzeko betebeharra. Nahita egindako edo zabarkeriagatik gertatutako kalteen erantzule arduragabe jokatu duen pertsona izango da
3. Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko betebeharra.
4. Ezarritako fidantza epe barruan ordaintzeko betebeharra.
5. Zerbaitek oker funtzionatzen bada, zerbait puskatu bada edo araudi honetan esandakoa betetzen ez bada, Udaleko langileei horren berri emateko betebeharra.
6. Instalazioan behar bezala jokatzeko betebeharra.
7. Adin-txikikoen kasuan, guraso edo legezko ordezkari batek sinatutako baimen-orka aurkeztu beharko dute.
8. Instalazioa behar bezala itxita uzteko betebeharra.
9. Segurtasun-neurriak eta larrialdietarako zehaztutako prozedurak jakiteko eta jarraitzeko
10. Aforoa errespetatzeko betebeharra.
11. Indarrean dagoen legerian jasotako bestelako betebeharrak guztiak eta araudi honek ezarritakoak betetzeko.

LAUGARREN TITULUA. GATAZKEN KUDEAKETA / ZIGORRAK

12. artikulua.

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzeak gatazka egoera bat sortuko du. Gatazka horren kudeaketa egiteko lehenetsitako sistema izango da Udaleko Gazteria Arloak indarrean duen Bitartekaritza Zerbitzuarena.

13. artikulua.

Egoera gatazkatsua suertatzen bada, une jakin horretan instalazioan zeuden erabiltzaile guztiei sartzeko baimena kenduko zaie eta bilera baterako deia egingo zaie, gertatutakoa argitzeko eta norbere ardurak hartzeko, bai eta norberak sortutako kalteen gaineko ardura hartzeko. Aurrerantzean nola jokatu den inguruko akordioak lortzea izango da helburu nagusia. Bileraren ostean, baimen-txartelak berriz ere aktibatuko dira, hala erabakitzen den erabiltzaileentzako.

14. artikulua.

Hartutako akordioa errespetatuko ez balitz eta erabiltzaile batek bigarren aldiz egoera gatazkatsua sortuko bada, zerbitzua erabiltzeko eskubidea galduko du, urtebete oso baterako. Edozein kasutan ere, sortutako kalte guztien ardura bere gain hartu beharko ditu..

BOSGARREN TITULUA. AZKEN XEDAPENAK

15. artikulua.

Araudi honetan jasota ez datozen kasuak, printzipioz, Gazteria Arloak ebatziko ditu.

16. artikulua.

Araudi honen aldaketak behar bezala argitaratuko dira ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten.

Hernanin, 2016ko azaroaren 29an